

Herri Aldizkaria **Otinotz**



**Antzerki tailerrak, Txin txin
hotsak ez du kezkatzen
Gregorio antzezlanak
taularatu du Azpeitiko
Antzerki topaketetan.**

ENHAIKATZEN
**Zintzo
Mintzo**
ELIARTEA

●
**Gurutze
Gorria
zerbitzuak
mantentzeko
negoiazioan**

●
**Gorka
Hermosa
Gipuzkoko
akordeoilari
onena da**

●
**Eski
denboraldia
dagoeneko
hasi da**

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20.700 Urretxu. Tel: 725775 **Koordinatzailea:** Amaia Pildain.
Erredakzio kontseilua: Jone Aldalur, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Mari Paz Etzeberria, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Anakris Zabala. **Kazetariak:** Jone Aldalur, Jon Balenziaga, Mari Paz Etzeberria, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Andoni Salamero, Marian Toledo, Anakris Zabala, Asier Zaldúa. **Publizitatea:** Jon Balenziaga eta Idoia Luzuriaga.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Maketazioa:** Amaia Pildain. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Kolaboratzaileak:** Bertso eskola, Gorka Azkarate.
Inprimategia: Gertu Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**1.500 ale. **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

AURKIBIDEA

- 3 **Bota puntua**
Bizkaia-Araba bertso txapelketa
Iritziz iritzi
Saskibaloiko Gabon Kopa
- 4-5 **Labur esanda**
- 6 **Santa Lutziko gora beherak**
- 7-9 **Zumardi elkarte**
Zumardiren 25. urteurrena
- 10 **Jose Antonio Garcia, Gipuzkoako Gurutze Gorrian**
- 11 **Gorka Hermosa, Gipuzkoako akordeoi lehiaketako irabazlea**
- 12 **Zenbat buru hainbat aburu**
Zer eskatzen diozu urte berriari?
- Zertan ari da**
Baltasar erregea
- 13 **Izerdi patsetan**
Eski denboraldia hasi da
- 14 **Berrondo idazlea**
- 15 **Agenda**
Zorionak

TELEFONOAK

UDALAK:

Urretxuko udala:.....720151

Udaltzaingoa:.....722597

Zumarragako udala:.....723011

Udaltzaingoa:.....725088

LARRIALDIK:

Anbulategia:.....724900

Ospitalea:.....723913

Gurutze Gorria:.....725364

Ertzaintza:.....724050

KULTURA:

Kultur Etxea:.....724170

KIROLAK:

Aldiri polikiroldegia:....720780

Ispila polikiroldegia:....724961

Beloki pilotalekua:.....720293

Ederrena pilotalekua:..724662

HEZKUNTZA:

Gainzuri ikastetxea:....721214

Garaialde lizeoa:.....722112

Ikastola:.....720026

Institutua:.....721413

Lanbide eskola:.....725477

Legazpi eskolak:.....721514

Zelai Aristi ikastetxea:...721354

Musika eskola:.....722593

EUSKARA:

Bisasti euskaltegia:.....720458

Udal euskaltegia:.....723310

KOMUNIKABIDEAK:

Eusko Trenbideak:.....150746

PESA:.....761646

Taxiak:.....720307

RENFE:.....721515

Txapelketa

Bizkaia eta Araba txapelketa bat pasa da berrogei lagun izen emanda zelako pasada! bidean zen mila traba hauxe pentsa nuen hara hemen gloriara ailegatzeko asko sufritu behar da

Txapelketaren aukera aurrera edo atzera hizkuntzak duen jolas batetik jokoa atera belar txarrarentzat sega lehiaketa bat hauxe da ondo edo gaizki irten daiteke zortearen arabera



ASIER OTAMENDI

Asier Otamendi urretxuarra, lana dela eta Gasteizen bizi dena, 6. izan da ospatu berri den Bizkaia-Araba txapelketan.

Zorionak Asier!

Saskibaloiko Gabon Kopa

Abenduaren 26tik urtarrilaren 4a bitartean saskibaloia izan da protagonista Aldiri Polikiroldegian. Aurtengoa izan da **Goierri Kirol Elkarteak** eta **Gaztelekuk Saskibaloiko Gabon Kopa** antolatu duten bigarren aldia.

120 pertsona inguruk jokatu dute 12 taldetan eta **Rupelon** taldeko legazpiarrek izan dira txapeldunak. Finala **Demencia Senil** taldearen aurka jokatu zuten legazpiarrek eta partiduen emaitza 46-57koa izan zen. Bi talde hauek garaikurra eta asteburu honetan Goierri elkartearen egingo duten afari mundiala jaso dute sari moduan.

Los Domingueros eta *Lola* izan dira hirugarrenak eta laugarrenak. 70-67ko emaitzarekin nagusitu ziren lehenengoak. Hauek sari moduan, garaikurra jaso dute. Sari hauetaz gain, **Zakataprost** taldeak kiroltasunaren saria jaso du. Sari hau arbitroari arazo gutxien emandako taldearentzat, jarrera positiboena

izan duen taldearentzat izaten da.

CCPP, Kanute Bulls, Estrambote, Basterrezinak, A Lemon Lemon, Ospide Kraustino Fausjut eta **Peces** taldeak izan dira saskibaloiko **Gabon Kopan** parte hartu duten gainontzeko taldeak.

Talde hauek guztiak, antolatzailerak eta ikusleek giro ona nagusi izatea lortu dute **Gabon Kopak** iraun duen 6 egunetan zehar. Bestalde, aipatzekoa da **Goierriko saskibaloiko taldeko** partaide guztiek antolaketa lanetan egin duten lana, bai arbitratzeko garaian ere, bestelako lanetarako prest egon baitira beti.

Aurrerantzean Gabon Kopa antolatzen jarraitzeko asmoa dute antolatzailerak. Horretarako partaideak beharko dira eta nola ez, Gabonak berriro iristea.

Goierri Kirol Elkarte
saskibaloiko taldea.

Gabon Koparen antolatzailerak

Aldizkari honek Urretxu eta Zumarragako udalen, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren dirulaguntza jaso du.



Urretxuko Udala



Zumarragako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailordetza



Antzerki tailerra Azpeitiko topaketetan

Urretxu Zumarragako Antzerki Tailerrak

Azpeitiako Euskal Antzerki Topaketetan "Txin txin hotsak ez du kezkatzen Gregorio" antzezlanaren estreinatua zuten. Antzezlanaren herriarrek egin dute bere osotasunean, gidaria, Patxi Iraetak idatzi du, zuzendaria, Juanlu Escudero da, Jose Mari Tena, Estibaliz Gutierrez, Estitxu Zaldua, Estitxu Sudupe, Iker Antia, Olatz Soraluze eta Estitxu Gomez dira aktoreak, argizatze lanetan, Alfonso Torregrosa ibili da, eszenografiarlan, Koldo Kadierno, eszenarioa Esnal haroztegiak eta Oscar Kadiemok egin dute, arroparen diseinua, Mikel Arranzek eta Begoña Idiakezek, kartela Pedro Narbaizak egin du eta argazki lanetan Jose Antonio Tellez aritu da. Kultur etxeko langileek bideratu dute laguntzaile guzti hauen lana. Bi udalek milioi erdiko dirulaguntza eman diete taldeari. Urtarrila inguruan antzezlanaren herriaren aurkezteko asmoa dute.

Hondakin-uren araztegia onartuta

Jose Antonio Maturana, Eusko Jaurlaritzako Garraio kontseilariak eta Gipuzkoako Ur Partzuergoko lehendakariak, Urola Garaiko hondakin-uren araztegia eraikitzearen behar diren 1.300 milioi pezetaren finantziazioaren ordainketa akordioa sinatu zuten. Erakunde bakoitzak prezioaren %50a ordainduko du.

Araztegia, Azkoitirako bidean eraikiko da, lanak 2 urtetan luzatuko dira eta 12 kilometrotan egingo dira. Lanak amaitu ondoren, Urola bere osotasunean garbituta egongo den Gipuzkoako lehen ibaiak izango da.

Isunak pankartak eusteagatik


Ezker abertzaleak antolatutako mobilizazioetan parte hartutako Urretxu eta Zumarragako hainbat herriarrek Bame Sailak jarritako isunak jaso ditu, egindako mobilizazioetan pankartak eusteagatik. Multak 50.001 pezetatik 5.000.000 pezeta bitartekoak izan daitezke eta guztira 13 isun jarri direnez, 6.500.000 pezeta izan daiteke ordaindu beharrekoa.

Isuna jasotako lagunetako batek, Joxe Jauregi zumarragarriak, berak inongo mobilizaziotan parte hartu ez duela salatu zuen.



BAPRI
Animalidenda
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak
Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

Urdaneta, 7 behea
Tel:72 37 09
20700 ZUMARRAGA



Plazaola,1
Tel:73 16 42
20230 LEGAZPI

INGELESA ● FRANTSESA ● ALEMANA ● EUSKARA

YOU Idiomas -n hizkuntza guztiak ikasi ahal izango dituzu munduan zehar arazorik gabe ibili ahal izateko

Zerbait afaltzen ospatu nahi baduzu

SASIETA
JATETXEA

EGUNEKO MENUAK ● ASTEBURUKO MENUAK

Legazpi, 5 ZUMARRAGA

72 29 16



Begoña Sagastizabal

© 72 51 90 - 72 06 76
Iparagirre hiribidea, 5 ZUMARRAGA



Xabier Santxotenen erakusketa Zumarragan

Xabier Santxotena eskultore nafarraren *'Poeta baten ametsa'* erakusketa, Zumarragako Legazpi dorretxean egon da ikusgai. Guztira, brontze eta egurrezko 60 lan izan dira ikusgai megafoniarekin girotutako geletan. Megafonian, Santxotenen poesiak eta haurren ahotsak entzun ahal ziren. Oteiza eskultorea ere inauguraziora etorri berak animatu baitzuen, Xabier Santxotena, Santa Lutziko Arantzazu jatetxean sukaldari lanetan zebilela, eskultura egitera. Oteizak behin eta berriz gorcailatu zuen Santxotenen lana.



**Zintzo Mintzo-
ren Batzar Nagusia**

Urtamilaen 25ean Zintzo Mintzok urteroko Batzar Nagusia egingo du Kultur Etxean goizeko 11etan. Batzarean 96ko balorazioa eta 97rako egitasmoen berri emango da. Bazkide guztiak claude batzarrera gonbidatuta.

ENPRESABERRI programa


Foru Aldundiak martxan jarri duen eutoenplegua sustatzeko ENPRESABERRI programa UGGA-SAk, Urola Garaiko Garapenerako Agentziak) bideratuko du Urola Garaian.

ENPRESABERRIk baliabide tekniko gutxi behar duten enpresa proiektuak garatu ahal izateko laguntzak eskainiko ditu.

30 enpresen proiektua bideratzea da arduradunen asmoa eta 2 urteko epean, lokala, telefonoa, faxa eta azpiegitura informatikoa doainekoa izango da enpresa berrientzat.

Olentzero

Urtero bezalaxe abenduaren 24an talde ugari ibili zen herriko kaleetan eta baserrietan gabon kantak abestuz. Opariz beteta zetorren Olentzero haurrez inguratuta ikusteko aukera ere izan genuen.



A

Secundino Esnaola, 5
☎ 72 42 07
ZUMARRAGA

deportes
APALATEGUI

Zabaleta, 3
☎ 28 77 87
DONOSTIA

Zabaleta, 3
☎ 28 77 87
DONOSTIA

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurria

☎ eta Faxa: 72 02 55

Erratzu, z/g 20700 URRETXU

Indarberritutako Santa Lutziak



Milaka lagun etorri zen Santa Lutzi egunez, Urretxu eta Zumarragara. Lehen orduetan feriatokia eta erakusketen inguruak artean libre xamar bazeuden ere, eguerdirako jendez gainezka zeuden bi herrietako kaleak.

Feriatokian, iaz baino abere gutxigo izan zen, 539 buru guztira eta lehiaketara aurkeztutako kapoi eta oilaskoen kalitatea ere, iazkoa baino zertxobait eskasagoa izan omen zen, adituen esanetan. Fruta eta barazki lehiaketak, berriz, iazkoak baino hobeak izan ziren, bai kalitate aldetik baita aurkez-

pen aldetik.

Buzkantza lehiaketan 15 harategik hartu zuten parte eta lehenengo biak ormaiztegiarrak izan ziren, Jesus Mari Deba eta Iñaki Campos. Bestalde, Ardo lehiaketan, Galarzak irabazi zuen.

Berrikuntzak aipatzekotan, bi gauza azpimarratzeko. Batetik, ostegunean, gauerdian erretzen jari eta Santa Lutzi egunez, eguerdian jan ahal izan zen moxala; bestetik, bi udalek elkarlanean antolatutako ekintza ugariak, dudarik gabe feria bultzatzeko mesedegarria izan dena.

SARITUTAKO HERRITARRAK

● ABEREAK:

Zaldiak: 1. saria, Angel Zangitu, Urretxu.

Behorrak: 1. saria, Jose Luis Zabalo, Zumarraga.

● KAPOI ETA OILASKOAK:

Urretxu eta Zumarragako arraza arruntako kapoi pare onena: 1. saria, Jose Angel Lizarraga, Urretxu.

Arraza arruntako oilaskoak:

1. saria, Pello Lizarazu zumarragarra jaso zuen.

Arraza arruntako oilaskoak:


2. saria, Jose Angel Lizarraga, Urretxu.

Urretxu eta Zumarragako

arrazak arruntako oilasko pare onena: 1. saria, Pello Lizarazu, Zumarraga.

● FRUTA ETA BARAZKIAK:

Herriko parte hartzaile onena: 1. saria, Josune Epelde, Urretxu.



Zumardi elkarte

Herriko ekintzetan laguntzeko prest dagoen lagun taldea



Noiz eta nola sortu zen Zumardi elkarte?

1971. urteko apirila aldean, Zumarragako 2 koadrila HOR KONPON eta EMPUJE, Txoko tabernan biltzen hasi ziren, elkarte gastronomiko bat sortzeko asmoz. Urte hartako abenduaren 8an, Nafarroa enparantzan, Zumardi elkarte inauguratzea lortu zuten. 1978. urteko irailean Elizkalera, oraingo egoitzara aldatu zen elkarte.

Zenbat bazkide izan

zituen hasieran eta zenbat zarete orain?

Sorreran 60 bazkide zituen Zumardik. Elkarte tokiz aldatzearekin batera bazkide kopurua gehitzea pentsatu zen eta egun, 80 bazkide eta 16 jubilatatu gaude bertan. Bazkideen batz besteko adina 50 urte ingurukoa da.

Zumardik herriko ekintza desberdinetan parte hartu izan du betidanik.

Bai, hala da, Zumarra-

garen alde lan handia egin duen herritar asko elkarteko bazkide da. Zumardiko sortzaileek betidanik ibili dira herriko ekintzen antolaketan laguntzen. Hasierako bazkideen ondoren elkartean sartutakoak ere, aurrekoen dinamika jarraitu dugu.

Zein ekintzetan hartzen duzue parte?

Azkenaldian Zumarragako danborradan elkarre moduan parte hartu ez badugu ere, urteetan ibili

da Zumardiko taldea lan horretan. Oraindik ere bazkide asko bere kasa iriteten da danborradan. Gainera, urteetan hala egin denez, dagoeneko ohitura bihurtu da Zumarragako musika bandak danborrada egunean Zumardin afaltzea.

Erregeen kabalगतan ere ibiltzen gara. Duela 25 urtetik hona, errege beltza eta bere laguntzaileak Zumardikoak dira. Errege bakoitzak 30 lagun behar ditu eta



✓ Herriko kirolaririk ospetsuenak eta Diego Garcia atleta olinpikoa, Iñaki Mujika, kirol kazetari ezagunak gidatu, eta Zumardi elkarteak antolatutako mahainguruan izan ziren.



✓ Zumardiko bazkideez osatutako txaranga Zumarragako kaleak girotzen.

hemen kabalgotarako izen ematea jakinarazi aurretik, 50 lagun prestatzen dira lan horretarako.

Hirugarren adinekoak ere kontutan izaten ditugu eta udazkenean geriatrikoko lagunak Zumardira gonbidatzen ditugu bazkaltzera.

Bestalde, urtero antolatatu izan dugu, aurten 25. urteurrena bete duen Zumarragako festetako dantza txapelketa.

Oso dantzari onak izan dira aurten.

Bai, guztira 11 bikotek hartu zuten parte. Euskadiko onenak izan ziren Zumarragan, Euskadiko txapelketako lau lehe-

"Herriaren alde lan handia egiten duen jende asko dago Zumardin"

"Oso giro ona dago elkarteetan. Bazkideen afari guztiak trikitiarekin girotzen dira"

"25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekintzek izan duten erantzunarekin gustura gaude"

nengoak eta 2 eta baita 3 urtetan ere txapel-dunak izandako bikotek etorri ziren. Aurten gainera, zenbait berrikuntza izan dira. Batetik, dantza lehiaketa orde, dantza erakusketa antolatatu dugu. Bestetik, txistularien doinuarekin dantza egin beharrean, trikitiarekin aritu dira dantzariak eta bukatzeko, Zelai Aristi plazan egin orde, Euskadi enparantzan egin da lehenengo aldiz. Jendea inguratzeko toki aproposagoa denez, aurrerantzean ere bertan egiteko asmoa dago.

Zer antolatu duzue 25. urteurrena ospatzeko

dantza erakusketaz gain?

Maiatzan hasi genituen ekintzak, orduan Urola K.E. ko eskubaloi taldeak antolatutako Elgorriaga Bidasoa eta Arrateren arteko eskubaloi partiduan laguntzaile moduan aritu ginen.

Ekainean, *I. Santa Isabel pilota saria* antolatu genuen, Belokiko pilota Batzordearekin batera, finala Zumarragako festetan jokatu zen. Dantza erakusketa ere orduan izan zen. Abuztuan, Bartzelona eta Leongo Ademar taldeen arteko eskubaloi partida antolatu eta Iñaki Urdangarin, Zumarragan

ITURGINTZA



LUIS ANGEL

Gure erakusketan zain gauzazu!

Deskargarako bidea, z/g, © eta Faxa: 72 54 59



ARTYRO

Eskolan edota etxean egin behar dituzun eskulanetarako behar duzun **guztia.**

Ipeñarrieta, 4 © 72 14 20 URRETXU

Kahunas

O'NEILL-ASTORE-LIBERTO-H.W.-LIBERO

Udazken eta neguko modarik onena

Nekolalde, 5 URRETXU © 72 56 89

25. urteurrena ospatzeko era askotako ekintza kulturalak antolatu ditu Zumardik

jaiotze eta Bartzelonako jokalaria dena omendu ge-nuen. Urrian, Izarraitz, Emio eta Torranora mendi irteerak egin genituen eta aste kulturala antolatu genuen. Bertan, gastronomia hitzaldia, mendiko diapositiben emanaldia inguruko kirolariek mahaingurua, drogari buruzko hitzaldia eta bertso afaria egin genituen.

Azaroan, Legazpi eskoletan, Irrintzik, Zumarragako txistulariek eta Peñagarikano anaiek, Mikel Alustizak eta Juan Luis Aranburuk osatzen duten taldeak jaialdia eskaini zuten Zumardiko Koralariekin batera. *Gazteen I. Sukaldaritzaren Lehiaketaren* antolaketan ere ibili ginen.

Nondik nora sortu zen Zumardiko korala?

1980. urtean abestea gustuko zuen bazkide

talde batek sortu zuen korala. Bertako abeslari asko Goiargi abesbatzan eta parrokiako koroan hasi ziren kantuan eta Zumardiko korala desagertu egin zen. 25. urteurrenak honelakorik merezi zuela pentsatuz, jendea berriro ere batera kantatzera animatu dugu. Esan beharra dago, Zumardiko koralarako partaide guztiak ez direla elkarteke bazkideak eta hauek izan duten jarrera eskertzekoa izan da.

Musika oso gustuko duzuela bistan da, ereserkia ere baduzue.

Duela 4 urte sortu zen Zumardi elkarteke ereserkia, Joxe Urteaga arduratu zen musika asmatzeaz, hitzak, berriz, Iñaki



✓ Zumardiko garai bateko korala.

Beitiarenak dira eta konponketak Luis Maria G. Artetxek, Tolosako bandako zuzendariak egin zituen.

Gainontzean zelako giroa izaten da Zumardin?

Oso giro polita izaten da gure elkarteke, mugimendu handia izaten da bertan, asteburuetan beteta izaten da eta bazkideen arteko afari guztiak trikitiarekin girotzen ditugu.



✓ Bartzelona eta Leongo Ademar taldeen arteko eskubaloia partidua antolatu zuen Zumardik, Iñaki Urdangarin Bartzelonako jokalaria eta jaiotzez zumarragarra dena ere omendu zuen.

ELIZ - KALE

AUTOESKOLA

Bidezar, 11
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

MASTER - Hezkor

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31
20700 ZUMARRAGA

LIBURUENDIA

GANBARA

Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45
20700 URRETXU

Gurutze Gorria negoiazioetan

Jose Antonio Garcia, Gipuzkoako Gurutze Gorriko behin behineko lehendakaria

Gipuzkoako Gurutze Gorriko lehendakari izendatu berri zaituzte beste bi lagunekin batera.

Bai, hala da. Orainarteko lehendakariak, Mikel Baguesek, dimisioa eskatu du. Urtamilarren 31an, Gurutze Gorriak, Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin sinatuta zituen hiru hitzarmen oso garantzitsu bukatu ziren. Hitzarmen hauen negoziazioekin jarraitu ahal izateko, beste bi lagunekin batera, Gipuzkoako Gurutze Gorriko lehendakari kargua hartu dut martxoaren arte. Hauxe baita arazoak konpontzeko jarri dugun epea.

Zergatik eskatu du dimisioa orain arteko lehendakariak?

Bolondres talde batek bere kontra prentsan behin eta berriz egindako kritikek beregan sortutako presio-erengatik. Diru kontuetan gehiegizko defizita izan dela salatu eta Baguesek dirua lapurtu duela ere aditzera eman zuten. Baguesek berak, auditoria bat kontratatu zuen arazoa ikertzeko, eta emaitzen arabera Gipuzkoako Gurutze Gorriaren defizita 52 milioi pezetakoa izan da, salatzaileek ziotena baino dexente baxuagoa. Baguesek inongo iruzurrik egin ez duela ere argitu da. Bestalde Gipuzkoan dauden Gurutze Gorriko 18 asanbladetakoa 16 lehendakari bere alde egon gara beti. Bi lehendakari bakarrik azaldu dira Baguesen aurka, hau adierazgarria da.

Zeintzuk dira martxoaren bitartean konpondu nahi dituzuen arazoak?

Garantzi handiko hiru zerbitzu dira. Batetik, RSTU izenekoa, premiazko garraioa, ambulanzia zerbitzua hain zuzen ere. Bestetik SAU delakoa, gaisoen etxeetara medikuek egiten duten bisita zerbitzua. Azkenik, medikuen zerbitzua eskaintzen dituzten ambulanzien gaia dago eztabaidagai.

Zein da zerbitzu hauen arazoa?


RSTUri dagokionez, esan, 1992an DYAK eta Gurutze Gorriak genuela ambulanzia zerbitzua Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmendua. 93. urtean Eusko Jaurlaritzak ez zion DYARI kontratua berritu eta gurekin 96. urteko bukaera arte jarraitu zuen lanean. Eusko Jaurlaritzak zerbitzuen ordainean 5 urtetan behin ambulanzia bat ematen dio Gurutze Gorriko asanblada bakoitzari eta aurretik emandako ambulanzia bakoitzeko bi milioi pezeta. Hala ere, Gurutze Gorria ambulanziaz erostea derrigortuta dago, Eusko Jaurlaritzak emandakoa matxuratzen denerako. Ambulanzien mantenu gastua eta pertsonal gastua asanblada bakoitzaren ardurapean dagoenez dirua galtzen da.

Orain arte dirua galdu baduzue, zergatik jarraitzen duzue lan honekin?

Zerbitzu hau Eusko Jaurlaritza sortu aurretik eskaintzen genuen. 97rako erabaki politikoak direla eta DYA eta beste 3 enpresa pribatu lan honetan jarri nahi dituzte. Eusko Jaurlaritzak enpresa pribatuei ordaintzeko adina diru badu, Gurutze Gorriari ordaintzeko dirua ere baduela uste dugu. Hau da, ez gaude enpresa pribatuen mesederako dirua galtzeko prest. Zerbitzu profesionala aldarrikatzen dugu eta hori Gurutze Gorriak ere eskaini deza-keela uste dugu.

Eskubideak galtzeko prest al zaudete negoziaketa hauetan?

SAU, medikuek etxeetara egiten duten bisita zerbitzua da. Osakidetzako medikuek egunean 24 eta 30 mila pezeta bitartean irabazten badute ere, Gurutze Gorriko medikuek 8.000 pezeta irabazten dute. 1997an astegunetan 11.000 eta asteburutan 19.000 pezeta ordaintzeko negoziaketan ari gara.



✓ **Jose Antonio Garcia, Urola Garaiko Gurutze Gorriko lehendakaria da**

Gure medikuek onartu dute. Modu honetan, 113 milioi pezetatik, 137 milioi pezetara pasatuko litzateke medikuei ordaintzeko Gurutze Gorriak jaso beharreko diru kopurua. Neurri honekin gure medikuek eskubideak galduko dituztela onartzen dugu.

Zein da arazoa, mediku zerbitzua eskaintzen duten ambulanzietan?

Gurutze Gorriak modu honetako bi ambulanzia ditu eta Eusko Jaurlaritzak urtean 32 milioi pezeta ordaintzen dio. 5 urte daramakigu zerbitzu honekin eta diru asko galdu dugu. Aurten Osakidetzak modu honetako ambulanzia bat erosi du eta Eusko Jaurlaritzak 108 milioi pezeta eman dio. Guk 47 milioi behar ditugu modu honetako ambulanzia zerbitzuaren gastu guztiak ordaintzeko eta beraz, guri diru hori ematea Osakidetzari ematen dion dirutza ematea baino merkeagoa da.

Negoziaketek izango al dute eraginik hemengo Gurutze Gorrian?

Bai, Urretxuko postua egunean 16 orduz bakarrik egongo litzateke zabalik. Egunez irekita eta gaeuz beti itxita egon beharko luke. Gaueko zerbitzua, Azkoitia edo Beasaingoek emango lukete. Azkoitiko postuak 24 ordutan zabalik egoteko baimena jaso du eta Beasainen oraindik erabakitze dago enpresa pribatua hasiko den lanean. Urretxuko postua 24 orduz zabalik dago, postua erabat itxtearekin mehatxatu dugulako.

Gorka Hermosa:

"Akordeoia da nire bizitza"

Gorka Hermosa akordeoilaria, Urretxun jaio zen orain dela 20 urte. Arrasaten egin berri den Gipuzkoako akordeoi lehiaketako irabazlea da. Irakasle onak izan ditu betidanik C.I.E.A. (Centro Internacional de Estudios Acordeonísticos) delakoan, Thierry

Pailletekin, nazioarteko irakasle garrantzitsuenetako batekin ikasia da. Izen handiko lehiaketa askotan izan da saritua. Madril, Gasteiz, Irun edo Iruñean kontzertuak emana da. Espainiar estatuko ordezkari Alemaniako lehiaketa batetan.

Zer suposatzen du Gipuzkoako lehiaketa irabazteak?

Batez ere akordeoi munduan ezagun egitea. Errekonomizimendua suposatzen du eta aurrera jarraitzeko gogoia ematen du.

Ordu asko jotzen al duzu egunean?

Txapelketarako prestatzen nengoela, egunean 6 ordu ibili izan naiz jotzen. Akordeoiak dedikazio handia eskatzen du, ordu asko sartu behar dira. Denbora asko da baina nik behintzat, gustura egiten dut, akordeoia jotzea ikaragarri gustatzen baitzait.

Noiztik jotzen duzu akordeoia?

Txiripaz hasi nintzen jotzen. Solfoa ikasten ari nintzela, musika tresna bat aukeratu behar izan nuen. Lagun batek, Jon Lekuonak, akordeoia jotzen zuelako erabaki nuen neuk ere jotzen ikastea.

Zumarragako musika eskolan ikasi duzu akordeoia jotzen?

Bertan hasi nintzen, baina musika eskolan nuen irakaslea, Javi Ramos, bere kontura hasi zen eskolak ematen eta berarengana joan nintzen. Irakaslea oso garrantzitsua da, garrantzitsuena. Zorte handia izan nuen. Nik eta nirekin batera ikasten hasitakook asko zor diogu Javi Ramosi. Akordeoia maitatzea erakutsi zigun. Gainera, oso ondo portatu zen, berak zekien guztia erakutsi zigunean, berarekin ikasten jarraitu beharrean, Irunera, irakasle frantses batengana bidali gintuen ikastera.



Nolako maila dago hemengo musika eskolan irakaskuntzari dagokionez?

Irakasleak ezagutzen ditut eta badakit asko saiatzen direla, baina hemen, oinarriko maila ikasten da. Edozein instrumentu benetan menperatu nahi bada, kanpora joan beharra dago.

Ze asmo duzu orain?

Ni musiko kontsideratzen naiz. Informatika ikasten ari naiz eta hau ere gustukoa dut, baina etorkizunean akordeoi irakasle izan nahi nuke. Lehiaketetan parte hartzen jarraitu eta neure buruarekin gustura sentitu arte ikasten jardutea da dudana asmoa.

Musika talderen batean jotzea ez al zaizu bururatu?

Irungo akordeoi orkestan jotzen dut. Musika talde hauek ondo pasatzeko eta lagunak egiteko ondo daude baina ezinezkoa da bizimodua bertatik ateratzea. Bestalde, orkestetan oso zaila da akordeoia jotzea, ez dagoelako

akordeoira egokitutako piezarik.

Musika konposatzen al duzu?

Zerbait idazten dut. Arrasaten egin den Gipuzkoako lehiaketako azken egunean neronek idatzitako pieza jo nuen. Zenbait lehiaketan kategoria baxuagotan neure piezak jo izan dira. Gustatzen zait konposatzea baina oso zaila da.

Herrian kontzerturik eskaintzeko asmorik ba al duzu?

Eman izan ditut herrian kontzertuak. Edozein lehiaketara joan aurretik oso ondo dator jende aurrean jotzea. Herrian kontzertu bat emateko eskaera egin nion udalari baina ez nuen erantzunik jaso. Lehiaketak irabazi ditudanean jaso izan ditut udaletik zorion agurrak, hau erreza da, baina lagundu behar denean lagundu behar dela uste dut.

LORTUTAKO SARIAK

- Urrezko domina epaimahaiaren zorion agurrak. "Concours D'accordeon International de ACF". Montpellier, Frantzia (1991).
- 1. saria, "Grand Prix International de L'accordeon". St. Etienne, Frantzia (1992).
- 3. saria, "Concurso Nacional de Jóvenes Intérpretes". Valladolid, Espainia (1996).
- 1. saria, "Gipuzkoako Lehiaketa". Arrasate (1996).
- Ohorezko sariaz bukatu zituen bere akordeoi ikasketak Gasteizko "Jesus Guridi" kontserbatorioan. (1996).

Zer eskuko zenioke urte berriari?



Margari Elias

Osasuna, lana... denek eskatzen dutena, betikoa. Azken postuan dirua jarriko nuke, baina egia esan dirua ere oso ondo dator.



Pello Etxeberria

Buruan ditudan proiektu guztiak ondo atera daitezela eskatuko nioke. Eta eskatzen hasiz gero, neskalaguna ere eskatuko nioke urte berriari.



Baltasar erregea

Beste urte batez urtarrilaren 5ean Urretxu eta Zumarragako haurrak normalean baino urduriago oheratu ziren, gau magiko horretan urrunetik etorritako pertsonai berezi batzuen bisita baizuten.

Gau horretako gorabeherak hobe ezagutu asmoz, Ekialdeko 3 erregeekin kontaktuan jartzea otu zitzaigun. Egun hauetan oso lanpeturik dauden arren, Baltasarrekin solasaldi txiki bat mantentzeko beta izan genuen.

Baltasarren hitzetan azken hilabete hau urteko hilabeterik neketsuena, horrenbeste gutun zabaldu, irakurri, paketeak prestatu ... baina hala ere haur eta horren haur ez diren askoren egun horrekiko ilusioak izerdi eta neke guztiak konpentsatzen ditu.

Aurtengo hau nola etorri den galdetu genionean honako hauek izan ziren bere hitzak: "Aurten ere Urola-Garai hori opariz josita utzi dugu, bertako haurrak oso ondo portatu baitira orohar.

Amaitzeko ekialdeko errege beltzak sekretutxo bat aitortu zigun, gure aldizkaritik bi herriotako haurrei kontu diezaiegun. Baltasarrek esana da urtean zehar euskaraz aritu diren haurrek 6an esnatzerakoan, zapataren ondoan jasotzen dituzten oparietan onerako igertzen dutela.

Azken sekretu honekin agurtu genuen Baltasar. Elkarrizketa horren ondoren 3 erregeak OTAMOTZekin gogoratu ziren eta urteroko ikatzaren partez beste zerbaite ondo dago.



Jesus Junkera

Batez ere zoriona eta pakea ahalbidetzen ez duten ekintzak gerta ez daitezten eskatuko nioke urte berriari.



Pili Alberdi

Langabezia gutxitzea eskatuko nioke urte berriari, horrek niri ere mesede egingo baitit.



- estetika
- dietetika

Bidezar, 7 Tel.: 72 36 52 ZUMARRAGA

TEJANO

Azken moda berria

Merkealdiak!

Ipeñarrieta 4

URRETXU



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • ☎ 72 20 00 - Fax: 72 24 00
20700 - ZUMARRAGA

Eski denboraldia martxan

Elurak mendi tontorra ikutzean, neguaz gain, eski denboraldi berri bat ere iritsi dela gogorarazten digu. Gaborak oporrak aitzakitzat hartuz, jende ugari animatzen da negu kirol hau praktikatzera. Gerutuagotik ezagutzeko, eskia oso gustuko duen GUTI SPORT dendaren jabearengana jo dugu, Jose Javier Gutierrezengana hain zuzen.

Afizio asko al dago bi herriotan?

Badago bai. Azken urteetan gainera gorakada nabarmena izan da. Duela urte batzuk lau katu bakarrik aritzen ginen baina orain jende asko animatu da eskia praktikatzera.

Ze zonalde aukeratu du jendeak kirol hau praktikatzeko?

Batipat Napar eta Aragoar Pirinioak. Gure bi herriotatik gertuen dauden zonaldeak direlako eta nahi adina elur aurkitu dezaketelako. Denboraldi bukaeran ordea, Pirinio zentralera ere joaten dira. Aurreko urtean adibidez ekainean eskiatzeko aukera izan genuen. Pirinio zentral honetan glaziarrek sortzen dira eta hauei esker, nahiz eta jadanik udararen atarian izan, mendiko eskia egitea posible izaten da.

Ze ekipamendu behar da eskiatzeko?

Oinarri-oinarrizkoena eski pare bat, botak eta fi-jazioak dira. Mendiko eskia eginez gero, larru batzuk ere beharrezkoak dira gorakoan eskiei jarri eta labaindu gabe igo ahal izateko. Gainontzeko guttia norberaren esku dago. Praka pare on bat, beturrekoak...

Kirol elitista al da?

Bai. Oinarrizko ekipamenduaren prezioa ehun milatik goragokoa da. Diru sarera egoki bat ez duen jendeak nekez praktika dezake honelako kirola. Kontutan hartu behar da gainera hemen ezin dela praktikatzen. Kotxea eta lo egiteko apartamendu edo aterpea ere beharrezkoa da eta honek ere bere kostua du.

Fisikoki prestaketa berezirik behar al da?

Beharrezkoa ez da baina bai gomendagarria. Footing pixkat eginez gero gorputzak ederki asko eskertzen du eskiatzerako orduan. Ongi ibili nahi ezkererako hobe da aurretik behar bezala prestatzea.

Ze elur klase da egokiena eskiatzeko?

Hauts elurra da egokiena. Normalean elur gogorarekin ez da izaten arazorik eskiatzeko, izotzarekin ordea bai.

Zuk mendiko eskia egiten duzu. Ze desberdintasun aurkitzen dituzu mendiko eski eta eski alpino artean?

Mendiko eskian zure kabuz ibil zaitezke honek dituen abantaila eta oztupoekin. Elur klase ezberdinak aurkitu daitezke eta zailagoa da praktikatzeko. Norbera ibiltzen den ingurunea menperatzea ere oso komenigarria da. Eski alpinoa berriz kontrolatuagoa dago. Jende ugari pilotzen da eta azkenean denbora gehiago pasatzen duzu errenkadan itxaroten, eskiatzen baino.


Ze aholku emango zenieke mendiko eskia praktikatu nahi duen jendeari?

Teknikoki eskiak ongi menperatzea. Ibili behar

zaren zonaldea ongi ezagutzea eta eguraldi iragarpenak ere adi entzutea, elur-jausi arriskurik dagoen edo ez jakiteko.

Zer moduz eskiatzen duzu?

Nik? Gaizki. Oso gutxi dakit eta dakidan apurra neure kabuz ikasi dut. Ez naiz inoiz eski ikastaroetan aritu. Denboraren poderioz ikasi dut baina ez dakit gehiegi.



"Herrian, eskiatzeko geroz eta afizio gehiago dago. Herritarrak Pirineotara joaten dira eskiatzera"

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23



Pedro Berrondo: Idazlea on-ereintzan

—Hi zer haiz? —Hi zazpi
Izazpi eta Izarraitzen arteko elkarrizketa

"**M**antxa-aldeko erri koxkor batean, bere izenik ez nuke gogoratu nai, bizi zan denbora asko ez dala etzeko- seme bat: lantza altxa-tokian, adarga zaar, zaldi igar ta erbi-zakur dun oietakoa". Cervantes-en "Don Kijote Mantxa'ko" liburuaren hasiera da hau, **Berrondo eta Lasarte'tar Pedro Maria Izaskunek (Oiartzun, 1919)** maisuki euskaratutako lanetik. Ez da hau gaur goizeko kontua, ez dut nik aurkitu. Hala ere, urteak joan eta urteak etorri, beti on dena gogoratzeak zer kalte ekar lezake? Maisulan galanta Berrondorena, urte berriaren atarian gogoratzekoa. Berrondok berak egindako lana azaltzea du helburu idazketatxo honek. Idatz-eredu jator bat hemen agertzea. Zenbat neke eta alperahalegin darabilgun maiz, euskaraz egoki hitz batzuk idazteko! Zenbat eta zenbat esaera jator, hitz, behar ditugunean bururatzen ez zaizkigunak!

Berrondorengan aurkitu dezakegu iturria. Hori etorria, hori jatortasuna, egokitasuna, hori idazten jakitea, hori eredu bikaina. Ez dira neuk alitzira egindako goralmenak hauek. Ez. Berrondoren idatziak irakurrita, besterik esan al daiteke? Nork ez luke beste hainbeste egingo? Cervantes bera harro egoteko moduko lana da; neure uste apalean, euskal irakurlearentzako irakurgai aberatsa. Luzea dela esango du baten batek. Bai, baina baditu atalak, astiro irakurtzeko, tarteka, nekatu gabe, nahikoa barre egitekoak ere bai! Eta idazleari buruz zer esan? Pedro Berrondo jauna, Donostian dago apez, apal eta abegikor, inguratu nahi zaionari aholku onak emateko prest.

Ez du "Don Kijote Mantxa'ko" lana bakarrik egin. Baditu oiartzuarak beste lan batzuk ere. Apezte eta Azkoitiko Maarixa (Madariaga) auzoan lanean

aritu eta gero, Ekuadorrera jo zuen misiotara eta handik 1965ean Euskal Herrira atzera. Orduan ekin zion hainbat lan egiteari: On Manuel Lekuonaren laguntzaile aritu zen Euskaltzaindian eta Pilar Cuadraren "Perfil y pulso de Guipúzcoa" euskaratu zuen. Estornes Lasak argitaratu zion eta, alde guzietako txalo eta onintziak entzunda, "Don Quijote de la Mancha" itzul zezan berotu zuen nafarrak. Honela, sei urteren buruan, egunero bizpahiru ordu idatziz, euskaratua zegoen ederki "Don Kijote Mantxa'ko" liburua, bi liburukitan apain. Azkoitian zegoela, ez dugu oraindik esan, kezka garbitu eta gorako bideak hartu nahian, Manresako leize-zulora joan zen Berrondo, San Inazioaren bideari segiz, hantxe sortu baitzituen Inaziok ejerzizioak edo gogo jardunak. Honela, San Inazioaren bizitza euskaraz jarriko ote zion eskatu zionean Telletxeak, baietz esan zion segituan, San Inazioaren zorretan bezala: "Eta gustora egin lana, oso gustora, San Inazioaren bizitza, nik ez dadukat damurik, oso ederki egin dago" esaten digu Berrondok. "Loiolako Inazio, bakarrik eta oiñez" liburitik pasartetxo hau bereizi

dugu, Izarraitz (Hi zer haiz? —Hi zazpi— horixe Izazpi eta Izarraitzen arteko elkarrizketa) mendiaren deskribapena alegia: "**Beste aldean Izarraitz, ikaragarrizko karaitz-mendia, gandorra soil eta urdinxka eguzkitan zurixka eta berde bizia egaletan gorantz gaillur-miñez. Gizon txapela jantzi lezake bizkar-gaiñetara igotzen danak; mendien ugari konta-eziñ-alakoa eta itsasoaren zabala erakutsiko dizkio tontorrek. An gaiñetan biltzen dira ekaitz-egunetan Kantauri-itsasotik datozen odei-konkorak; mendi-egaletan, gudarosteen ekiña antza, zabaltzen dira, aize-zakar aserreak Zestua-aldeko mendi artetik ero-ero sartzten diralarik. Bekozko illun beldurgarria jarri oi zaio olakoetan mendiari bere zakar itsusian. Bearraren zailla da Izarraitz, aundiaren geiegia, beldurgarriaren ezkutua eta ezkutuaren bizimena, beste nonbaiteko zeraren zera, eguzkia egunero gordetzen dan gordelekua. Onela, izadiaren aurpegi bi Loiola'k, alde batera bata ta bestera bestea". Has gaitezen geu orain, Izazpi nolakoa den esaten ondo, begira dugu albotik Berrondo.**

Nola idazten diozu zure maiteari? Don Kijotek bezala?

TOBOSO'KO DULZINEARI ESKUTITZA, DON KIJOTEK



"Goeneko andere agurgarri ori:

Berak ez duan zoriona opa dizu, Toboso'ko Dulzinea ezti-ezti orri, urruti zorrotzak zauritua ta biotz-muiñetan urratua dagon onek. Zure ederrak arbuizatzen banau, zure kemena nere alde ez badago, zure eziñak nere alegiñarentzat badira, eziñ iraungo dut neke ontan; gogorraz-gaiñ, iraupen luzekoa ere ba da-ta. Santxo, nere ezkutari zintzoak, emango dizu berri zer-nolatan gelditzen naizen zuregatik, esker-txarreko eder ori, nere etsai maite ori! Zurea nauzu laguntzera bazatokit, eta, bestela, nai-duzuna egizu: nere biziari bukaera emanaz, zure biotz-gogorrari zor zaiona eta nere gogo onari dagokiona, egiña izango dut-eta. Ill-arteraino zure, Figura Trixte Zalduna."

IRRATIZALEAK

✓ **Urtarrilak 11**, Urretxuko festetan irratizaleen 24 ordutan parte hartutakoen artean **sari banaketa** egingo da **LUZ irratizale elkarteak** antolatuta. Ekitaldia, Eitzako parbulario zahar-rean egingo da arratsaldeko 4etan.

ARGAZKIA

✓ **Urtarrilak 11**, Santa Lutzi egunez egin zen **Zumarra-ga eta Urretxuko IV. Argazki Rallyko sari banaketa** egingo da Kultur Etxean goizeko 11etan.

ZINTZO MINTZO

✓ **Urtarrilak 25**, Zintzo Mintzok urteroko **Batzar Nagusia** egingo du Kultur Etxean goizeko 11etan. Bertan 96ko balorazioa egin eta 97ko egitasmoak azalduko dira. Zintzo Mintzoko bazkide guztiak daude gonbidatuta batzarrera.

MENDI IRTEERAK

✓ **Urtarrilak 12**, **Ostadar mendi taldeak** Zuberora antolatu du mendi irteera. Atharratze, eta 795 metro-tara dagoen Maida-lena baselizara joateko asmoa dago. Aldapa motzeko mendi kordal labur bat jarraituko da eta Maida-lenako baseliza ikusteaz gain, Gotañen hiru geziko eliza ikusteko aukera ere izango da. Irteera ordua, goizeko 7etan izango da, eta Zumarragako eliza paretik dago irtetzeko asmoa.

✓ **Urtarrilak 26**, Zeanuri-Pagomakurrera mendi irteera antolatu du **Goierrri Kirol Elkarteak**. 1302 metro-tako Lekanda mendia, Itxina, Aizkorigain eta Ibarra joateko asmoa dago irteera honetan.

✓ **Otsailak 1**, **Goierrri kirol Elkarte** mendi taldeak eta **Ostadar mendi taldeak** elkarlanean mendi irteera antolatu dute. 1997. urtean, **Bizkaiko bira** egiteko asmoa dute eta otsailaren 1ean, Aguera-Balmasedara joateko asmoa dute.



Ane, urte berriarekin batera zeuk ere urte bat gehiago beteko duzu. **Zorionak** zure hamazazpigarren urtebetetze egunean eta zure ingurukoekin batera ondo pasa urtarrilaren 15ean.



OTAMOTZen bitartez horrenbeste jende zoriondu duen emakume jator honek aldizkariko erredakzio taldearen agurra merezi du. **ZORIONAK Aintzane**



Nahiz eta alaba bat besterik ez eduki seme-alaba asko dituzue eta horietako batzuek zoriondu nahi dizuete. **ZORIONAK!!!! Luis** eta **Gene** eta kontuz txanpainarekin.

Keros
Enmarkatze
arte ederrak
dekorazioa
opariak

Labeaga, 35 Tfnoa: 71 41 60 20700 - URRETXU

Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU © 72 25 99

EDURNE

Punta puntako moda
Aukerarik hoberena
gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA

AUTO ASEGURUA

- Segurutik zuregandik hurbilago gaude, zu hobeto zerbitzatzeko
- Segurutik noranahi joanda ere, Laguntzarako Telefonoa izango duzu
- Segurutik Bidaietarako Laguntzan Estaldurarik Hoberenak izango dituzu
- Segurutik Peritazioa Azkar baino azkarragoa izango da
- Segurutik zure Hobariak kontuan hartuko ditugu
- Segurutik gure prezioen truke ez duzu estaldura hoberik aurkituko



Kalebarren, 1. Tel: 72 50 22
ZUMARRAGA


SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK